

FUNDACION
SABINO ARANA
ULT
2005ko otsaila


35. zenbakia

AIKOR!

txorierriko aldizkaria

Dave Bieter, Boiseko alkatea

Euskaldunak Ameriketan





Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili,
Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, eta Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juantxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Oihana Astobieta,
Maripi Agirre, Imanol Alvarez, Jabi
Agirre, Basabiloiz, Oskarbi
Fotografoak, Miren Fernandez,
Kaleko, Jesús Morán, Udane
Goikoetxea, Sabino Arana Kultur
Elkargoa, Iosu Ziordia.

Portadako argazkia: Sabino Arana
Kultur Elkargoa.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-
9322

Aikor! aldizkariak ez dau
bere gain hartzen aldizkariaren
adierazitako esanen edota
eritxien erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



20 Aikor! jaia



14 Korrika 14



22 Joseba Apezetxea



11 Susana Martínez



24 Juan Luis Goikoetxea



26 Derioko Xake Taldea

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Hemeroteka **7**Laburrak eta albisteak
11Gurean izan da... Susana Martínez **12**Gazteen txokoa
13Gaztea eta... Carlos Arranz **14**Korrika **16**Dave Bieter
20Aikor! aldizkariaren 3. urteurrena **22**Joseba Apezetxea
24Juan Luis Goikoetxea **26**Derioko Xake Taldea **28**Baserri
mundua **29**Teknologia **30**Txorierri ezagutu **31**Txorierritarak
munduan **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ **e-posta** _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro _____ beste kopuru bat _____

**Orri hau helbide honetara bidali: Aresti, 2 / 48170, Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Bakoitza bere etxean, telebista denonean



IMANOL ALVAREZ
(Filosofia ikaslea)

Gauza normala da gaur egun —kulturaren izenean sarri— telebista egurtzen duten ahotzak non-nahi aditzea. Nik, ordea, ez dut oraindik bu-ruan zedarritu telezaborra hitzak hartzen duen eremua (aspalditik gure artean dugun kontzeptua). Finean, hainbestek aldarrikatzen duten kaltegarritasuna ikusten ez diodako izango da, ez behintzat heldutasunez jantzitako nortasun batentzat. Are gehiago, konbentzitu nago guztiok ditugun arazo-
ei buruz aritzeko per-sona anonimoak gonbidatzen dituen saio kutreenak ere eman dezakeela denbora-pasa soila gainditzeko duen irakaskuntza.

Gakoa honetan datza: ikusle aktiboaren betaurreko pedagogikoak jantzi behar dira hausnarketarako gogorik gabeko ikusleengan. Valentziako unibertsitateak argitaratu-tako ikerlan batek —ni batere harritzen ez naue-
nak— erakusten du non dagoen arriskua: gaur egungo 10-14 urte bitarteko neska-mutilen zati handi batek famatu izan nahi du nagusitan... Lanbide galanta.

Baina kontuak kontu, hainbat alditan arrazoiz kritikatu dugunari berea emanez, telebista apurka-apurka aldatzen ari dela uste dut. Orain gutxira arte jasaten genuen programazio dikotomikoak, audientzia handiko saio tamalgarriak lau katuk ikus-ten zituzten kalitatezko saioekin tarteka-tzen zituenak, paso eman dio eztabaida soziala eta mota askotako irakaspenak audientziaren helburuarekin nahasten dituzten saioen zabalkundeari (Pásalo, Crónicas Marcianasen pasarte batzuk, Me lo dices o me lo cuentas...).

Joerarekin jarraituz, adierazgarria irudi-tzen zait TVEk estreinatu berri duen 60 segundos programa. Gaurkotasan politikoa dinamikotasun interesgarri jorratzen duen mahai inguru honek minutu bana eskain-tzen die alderdietako bozeramaileei, baina transmititu dezakeen show itxurak ez luke errealitatea estali behar. Nire irakasle batek esan ohi zuen dakienak azkar eta argitasu-
nez egiten dituela azterketak; egia alde duenak ere ez du erretorika de-
magogikoaren be-
harrik. Nahiz eta Euskal Herriak pairatzen duen arazo politikoari dagokionez, inte-
resak interes ager-
tu, argi dago obje-
tibtotasunaren es-
kubidea alde aurreretik galdu dugu-
la telebista kate
espainiarretan,

*“Programazio
dikotomikoak eztabaida
soziala eta mota
askotako irakaspenak
audientziaren
helburuarekin nahasten
dituzten saioen
zabalkundeari eman
dio paso”*

hainbat arazo ditugu konpontzeke gizarte honetan.

Esandakoak esanda, beharko lukeenetik urrun dago oraindik telebistaren kalitatea, baina azken lau urteetan manipulazio lotsa-
garri bat nola egin daitekeen ikasi eta gero, erabaki burutsu bezain ondratua iruditzen zait horrelako saioen agerpena. Audien-
tziazirik onena opa diet.

Oi, gure lur...



JABI AGIRRE
(Zorritzetan euskera alkartearen kidea)

Denboran zehar hainbat per-sonak gorazarre egin diote Ama Lurrari: poetek, abesla-
riek, ekologistek, nekazari-
ek zein mendizaleek. Lurrarekin lotura estuan bizi izan direnek txertatuta utzi dizkigute memoria kolekti-
boan berarekiko izan dituzten mirespen eta errespetua. Gaurko gizartean, oster-
a, nabariak dira lurrari egiten ari zaizkion erasoak.

Euskal Herrian triskantza egiten ari da hazkunde ekonomikoaren izenean: lehen-
gaien kontsumoa, lur eta energiaren erabi-
lerra (zentralak), garraioa (AHT), autobiak, golf zelai suntsitzaileak... Eta hauek guz-
tiak gutxi batzuek hartutako erabakiak ditugu. Derrigorrezkoa da ekoizpen eta kontsumo eredu hau onartzea? Nortzuek erabakitzen dute? Noren interesen alde?

Gizarte mugimenduek eta herritarrok ez daukagu alternatibak aurkezteko auke-
rarik. Gehienez jota, lau urterik behin boz-
katu eta politikoen esku utzi guztia, euren konponduko dute eta.

Demokrazia herriaren agintea bada, hemen ez dagoela demokraziarik argi esan behar da. Nola erantzun egoera horri?

Pertsona lez, gure ingurugiroa ezagu-
tu eta errespetuz gozatu behar dugu. Herritar lez, informazioa jaso eta eztabai-
detan parte hartzeko eskubidea aldarrika-
tu behar dugu.

Zuk, irakurle, jakingo duzu zelan jokatu arazo honen aurrean. Nik neuk, Lezamako zein Euskal Herriko orde-
zka-
riak aukeratzekoan lurrarekiko duten jarrera izango dut kontuan.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Alaitz eta Pika, etxean nahi ditugu!!!

Otsailaren 9an, Espainiako indar polizialek 14 euskal herritar beraien etxeetatik atera eta Madrilera eramán zituzten, ETA erakunde armatuko kide edo laguntza ematearen akusaziopean. Beraien artean, Txorierriko bi gazte aurkitzen ziren: Alaitz eta Arkaitz Pika. Horrela, Garzon epaileak beste hainbat alditan egin duen bezala, inpunitate osoz, bakearen eta demokraziaren izenean, gure bi lagunak Madrilera eramán eta hiru egun luzez inkomunikaturik eduki zituzten.

Kolpe oso latza izan zen guretzat Alaitz eta Pikaren atxiloketa. Baina askoz ere gogorragoa izan zen inkomunikazioak iraun zuen hiru egun horietan ezer ere ez jakitea, ez non zeuden, eta zelan zeuden. Poliziak egindako torturak gogoratzera koan eta Alaitz eta Pika torturatuak izan zitezkeela pentsatzean, tristurak betetzen gintuen.

Ostiralean, Alaitz eta Pika, Auzitegi Nazionaletik pasatu behar zirenez, maletak hartu eta familiekin batera Madrilera joan ginen gure lagunak etxera ekartzeko itxaropenarekin. Madrilen, bi egun luze pasatu genituen, beraiekin zer egingo zuten jakin arte. Orduan, bigarren kolpea jaso genuen. Garzonek biak espetxeratzeko agindua eman zuen.

Hala ere, gertaera hauek gure Euskal Herrian askotan izaten direla kontutan izanik, Pikaren koadrilakook hausnarketa hauek helarazi nahi dizkiegu Txorierriko herritarrei:

1.- Pika eta Alaitz ETAKoak diren edo ez

diren jakitea ez da gure ardura. Gure hausnarketa Euskal Herriak bizi duen gatazka politiko eta armatuaren konponbidean zentratzen da. Hain zaila da sentsibilitate edo proiektu desberdinak ditugun artean hitz egitea? Hain zaila da bakoitzak bere proiektua mahai gainean jartzea eta apurka-apurka baldintza berriak sortzea, aurrerapausoak emanez gatazkari bukaera emateko?

Ez al dugu denok bakean eta askatasunean bizi nahi?

2.- Jakin badakigu, gatazka honen ondorioz, era batera edo bestera, azkenean denok sufritzen dugula. Egun hauetan sufritu

duguna ez diogu inori desio. Ordua da konponbide bat bilatu eta sufrimenduok alde batera uzteko.

3.- Ez dugu ulertzen, zergatik eduki behar dituzten hiru egunez inkomunikaturik. Haien kontrako frogarik badute, zertarako? Baina ulertezinagoa egiten zaigu 2005. urtean oraindik inkomunikazioa indarrean egotea.

4.- Ez al da presoen eskubidea zigorraren euren etxeetatik hurbilen dauden espetxeetan betetzea? Zergatik ez da orduan eskubide hau betetzen?

Bukatzeko, gure besarkadarik beroena eta musurik handiena bidali nahi diegu Pika eta Alaitzen familiakoei. Nahi duzuenarako, zuen eta haien ondoan egongo garelako, eutsi goiari eta animo!

Haritz Agirre eta Aner Petralanda,
Pikaren koadrilakoen izenean

Alaitz Artetxerekiko elkartasuna

Mezu honen bitartez hauxe adierazi gura du Ekidazu Lezamako Abesbatzak:

Gure korukide, lagun eta adiskide den Alaitz Artetxeren eta bere lagun atxiloketa dela-eta, arduraz eta beldurrez ikusten dugu polizia nazionalaren ekintza hau. Ardura handiz, Alaitz eza gututa ziur gaudelako bere eskuak eta bere bihotza garbi daudela eta garden direla... Eta beldurrez, badakigulako komisaldegietatik pasatzeak zer nolako ondorio fisiko eta psikologiko uzten

dituen askotan, erru bako (eta hauxe da kasua) edo errudun izan arren.

Hori guzti hori kontuan izanda, publikoki eta ozenki geure elkartasuna kantatu gura dugu ahal denik eta urrunen helduko delakoan, geure afektua eta laguntasuna eskaini gura diogu Alaitzi eta bere familia eta lagun guztiei, eta bere askatasuna exijitu gura dugu podere publikoen aurrean.

Alberto Olabarrieta,
Ekidazu Lezamako Abesbatzaren presidentea



Iñaki BARCENA | Irakasle eta ekologista larrabetzuarra

Itzulerako trenaren zain
BERRIA, 2005-01-30

‘Euskal Herria nora zoaz?’ liburua argitaratu berri duzue. Zein da bere helburua?

Ekimen ekologista eta unibertsitario baten fruitua izan da. Aspaldiko partez gabiltza alor ezberdinetako jendea planteatzen Euskal Herrian dagoen ekoizpen

eta kontsumo eredua kolokan ipini behar dela, eta, alde horretatik egina dago liburua. [...] Izan ere, eztabaida sortu nahi dugu. Euskal Herrian bultzatu behar dira eztabaida hauek, zoritxarrez politikagintzan ez direlako ematen. Gizarte mugimenduek eragiten dituzte eztabaida hauek, baina mintzakidetza politikorik gabe. Mahai gainean jarri nahi dugu hazkunde ekonomiko ustez ukiezin horrek emaitza edo ondorio negatiboak dituela gure artean, kontuan eduki gabe hemendik kanpo zer ondorio dituen.

Patxi GAZTELUMENDI | Kazetari larrabetzuarra

"Blogak: kazetaritza digital berria"
GAZTELUMENDI.ORG
(gaztelumendi.bloghing.com), 2005-02-03

"Atzean utzi dugun urteak zeozer eman badu Interneten, blogen eztanda izan da. Bitakorak, pertsonalak, kolektiboak zernahi gairi buruzkoak hedatu dira. Barra-barra. Milioika. 5,8 segundoro bitakora berri bat sortzen omen da munduan. 15.000 blog berri egunean. Han eta hemen. Han hemen baino gehiago baina. Software erabilerrazarekin, edonork sortzeko moduko tresna da bitakora, edonork edozer idazteko baliatzen duena. Dakigunari buruz, edo gure zaletasunari buruz, elkarteari buruz, bizi dugunari buruzko artikulak idatzi, argazkiak argitaratu eta munduan barna eskaintzeko. Segundo gutxitan, aparteko tresneria eta jakituria barik."



Begoña VICARIO | Zinemagile eta irakasle lezamarra

10 tona patrimonio
BERRIA, 2005-02-09

"Euskal Herrian egin den animazio lanen artean hainbat pelikula luze eta labur, hainbat telebista serie eta horrenbeste publizitate iragarki daude, bakoitzak bere paper eta azetato aztarna utzi du eta horixe da orain arte animazio zinea maite dugun batzuk gordetzen ahalegindu garena, baina laguntzarik gabe ezin izango duguna luzaroan mantendu."

Lezamar bat Lezaman txapeldun, aspaldiko partez



Otsailaren 18an, Eskualdeko 46. Pelota Txapelketaren finalak jokatu ziran Lezaman. Frontoiko beheko aldea pilotazalez ia-ia beteta izan zan, eta giro polita eta beroa sortu zan bertan.

Gazte mailan, Apezetxeak eta Arrastok 22-19 irabazi eben Etxebarría eta Arrutiren kontra, partidu txukuna eta parekatua jokatu ondoren. Aurtenetxek eta Zubiagak jantzi eben txapela nagusi mailan, Diaz eta Okiñena 13 tantotan itxi ostean. Bizkaitarrek partidu zuzena eta serioa egin eben Nafarroako bikoteari irabazi ahal izateko, eta atzelariak zein aurrelariak, biek merezidu arren, Aurtenetxek jaso eban pelotari onenari emoten jakon garaikurra. Kiniela gehienak beharbada ez, baina zaratak eta animoak batez be herriko gaztearentzat izan ziran. Ander Olidenek Nagoreren laguntzaz lortu ebanetik, hamahiru urte pasatu dira lezamar batek barriro txapela jantzi arte. Zorionak Asier!

Testua: Basabiloltza/

Argazkia: Oskarbi Fotografoak

Etorkinentzako euskarazko hiztegia

Etorkinei zuzendutako euskarazko hiztegia kaleratu berri du Txorierriko Mankomunitateak, Alkarbide Bizkaiko euskara zerbitzuen koordinazio gunearen bitartez. Hiztegia osatzeko zazpi hizkuntza hartu dira kontuan: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, portugesa, katalanera, galegoa eta arabiarra. “Oso oinarritzko hiztegia da, baina euskarekin kontaktu bat izateko nahikoa dela uste dugu”, azaldu dio AIKOR! aldizkariari Lurdes Lasuen Mankomunitateko euskara teknikariak. Proiektua Bizkaiko beste herri batzuetan ere jarri da abian.

Kixoteren gaineko ekitaldiak Zamudioko liburutegian

Cervantesek idatzitako *Mantxako On Kixote* liburuaren 4. mendeurrena ospatzeko, gai horri buruzko hainbat ekintzak antolatzen dabiltza Zamudioko liburutegian. Ekintzok eskolako umeei zein interesa duten guztiei zuzenduta daude, eta liburuaren pasarteak irakurtzeaz gainera, “Kixoteren ibilaldi ezberdinak” egiteko aukera izango da. Informazio gehiago liburutegian.

Tximintxeko Eguenak badatoz berriro

Etenaldi baten ostean, Tximintxeko Eguenak antolatuko ditu berriro Derioko Euskara Elkarteak. Koldo Ameztory ipuin kontalariak hasiera emango die martxoaren 3an, 20:00etan, herriko kultur aretoan.

Raul Fernandez de Arroiabek Cho-oyu mendia igoko du



Argazkia: Jesús Morán

Desafio gogorra egin dio Lezamako Raul Fernandez de Arroiabek bere buruari, izan ere, Bilboko Mikel Alvarezek eta berak Cho-oyu mendira igotzeko asmoa dute eta Himalaiara abiatuko dira martxoaren 23an. Cho-oyu (8.201 m) Nepal eta Tibeten arteko mugan dago eta planetako seigarren mendirik altuena da.

“Abentura hau prozesu baten ondorioa da”, esan dio Aikor! aldizkariari lezamarrak, “Lagunekin batzuetan, eta bakarrik beste batzuetan, munduko hainbat mendietatik ibilia naiz: Andeak, Alpeak, Kaukaso... Eta lagunen artean sortu zen Cho-oyura joateko ideia”.

Everesteko kanpamentu 1etik Katmandura abiatuko dira. Tibet igaro eta handik Cho-oyu mendira igoko dira ipar-aldetik. “Urduri eta ilusionatuta gaude orain, baina mendirik zailenetariko bat da eta arriskua eta sakrifizioa dakartza: hotza handia, oxigenorik eza, ekaitz arriskua... Goia harrapatzen duzun eguna gogorrena da, eta lortu ondoren zailena faltan duzu: jaistea. Istripu gehienetan jaitsieran izaten dira, gainera”.

Raulek eta Mikelek hilabete biko espedizioa egiteko asmoa dute, eta horretarako laguntza jaso dute hainbat enpresetatik.

Elurretara eta Benidormera bidaiak

Martxoaren 23tik 29ra bitartean, Isola 2000 eski estaziorako bidaia antolatu du Zamudioko Udalak. Bidaian izena emateko azken eguna martxoaren 11 da. Beste alde batetik, Benidormera bidaia ere egingo dute martxoaren 29tik apirilaren 11ra bitartean. Jubilatuei zuzenduta dago, eta inskripzioa martxoaren 1etik 10era arte egin behar da. Informazio gehiago Udaletxean, edo 944060998 telefono zenbakira deituta.

Euskara elkarteetan parte hartzeko kanpai- na

Aberastu zaitez! Egin zaitez bazkide kanpainan abian jarri dute euskara elkarteek eta Topaguneak. Kanpaina horrek euskararen erabilera eta partehartzea sustatzea du helburu eta hamahiru euskara elkarte batu ditu. Lezamako Zorritzketan bultzatzaileenetarikoa bat izan da: “Topagunetik proposatu zitzaigun, eta bazkide gehiago izatearen beharra genuenez azpiegitura aprobetxatzea eta parte hartzea erabaki genuen. Horrezaz gainera, euskararen inguruan ahalik eta pertsona gehien biltzea beharrezkotzat jotzen dugu”, esan dio Aikor! aldizkariari Lourdes Prudencio presidentea. Kanpaina komunikabideetan zabaldu da, eta bazkide egiteko esku-orriak ere banatu ditu Zorritzketanek herrian. Bazkidetza kanpainarekin martxoan jarraitzeko asmoa dauka Lezamako elkarteak, “eta Mikel Zarateren DVD-dokumentala ere aurkeztuko dugu Korrikaren ostean”.

Dobaran Euskadiko Futbol Federazioaren presidente berria

Otsailaren 18an, Euskadiko Futbol Federazioaren presidentziazako hauteskundeak izan ziren, eta Iñaki Dobaran zamudioztarra presidente aukeratu zuten bertan. Emandako 124 botoetatik 65 lortu zituen Dobaranek.

Emakumearen Nazioarteko Eguna Txorierrin

Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da, eta Txorierrin ere hainbat ekintza antolatuko dira. Horrela, bada, egun horretan Oihulari Klown taldeak *La espera* lana antzeztuko du Sondikako kultur etxean; hilaren 9an *Molestias clownicas* antzezlan aurkeztuko du. Derioko hitzaldi aretoan emakumearen arazoei buruzko hitzaldia izango da hilaren 8an, 15:00etan, Sutondoan elkarteak antolatuta, eta hilaren 12an, 13:30etan, isileko bilketa egingo dute Udaletxean. Iciar Bollainek zuzendutako *Te doy mis ojos* filma jarriko da martxoaren 4an Zamudio dorretxean, eta tratatu txar psikologikoei buruzko hitzaldia izango dute hilaren 8an.



Loiuko Udalak 18.000 euro eman ditu laguntza humanitariorako

Loiuko Udalak 9.000 euro eman dio Euskal Fondoari, 6.000 euro Iquitanz gobernuz kanpoko erakundeari eta 3.000 euro Behar Bidasoa GKEri. Orotara, 18.000 euro bideratu du laguntza humanitarioaren proiektuetara.

Euskal Fondoak Tindufeko kanpamentuetako errefuxiatu sahararrei laguntzeko erabiliko du dirua. Equitanz erakundeak Peruko oihanean abandonatuta dauden umeen alde inbertituko du laguntza. Behar Bidasoa GKEk lokal bat erosiko du Pereirako emakumeen tailerretan egindako produktuak saltzeko.

Beste alde batetik, Saharara materiala bidaltzeko kanpaina bat antolatu zuen Udalak urtarilean. Azukrea, atun-latak eta konpresak batu ziren, besteak beste. Material hori guztia Saharara garraiatzeko 600 euro ere ipini zituen Udalak.

Lleidako La Florestara bidaia

Euskadi-Catalunya XVI. Kultur Astea ospatuko da martxoan Lleidako La Floresta herrian, eta bertara joateko bidaia antolatu dute Loiuko Lagunak Kultur eta Kirol Elkarteak eta Nagusien Etxeak hilaren 25etik 27ra bitartean. Bidaia 189 euro balio du eta autobusez egingo da. Egonaldiaren barruan hainbat bisita programatu dira: Les Borges Blanqueseko Olioaren Parke Tematikoa, La Florestako gaztelua eta izotzezko putzua, Tarragonako L'Espluga de Francolíko monasterioa... Martxoaren 14ra arte izena emateko aukera dago, 607956196 telefono zenbakira deituta.

Alaitz Artetxe eta Arkaitz Ormaetxe kartzelatu dituzte

Alaiz Artetxe lezamarra eta Arkaitz Ormaetxe *Pika* zamudioztarra espetxeratzeko agindua eman du Baltasar Garzón Auzitegi Nazionaleko epaileak. Gazte biak otsailaren 9ko goizaldean atxilotu zituzten Euskal Herriko beste 14 gazterekin batera. Txorierriarrei banda armatuarekin kolaboratzea leporatu eta kartzelaratu egin dituzte; Artetxe, Alcala Mecon, eta *Pika*, Navalcarneron. Biak behin-behineko presoaldian daude.

Txorierriko Gazte Mugimenduaren arabera, errepresioa ez da bidea

Txorierriko Gazte Mugimenduak atxiloteta biak kritikatu ditu gutun baten bidez. Bereziki, Alaitzen kasua aipatu dute, “hasiera baten *Pika* atxilotzeko agindua zeukaten, baina ez dute oztoporik izan Alaitz ere atxilotzeko, Zutabe aldizkaria edukitzeagatik”. Halaber, oso gogor kritikatu dute “demokraten” jokabidea, “beste batzuetan, interesatzen zaienean, bandoa ateratzen dutelako euren kritika plazaratzeko”. Kasu honetan, “Txorierriko gazte bi atxilotu eta inkomunikatu direnean”, beste era batean jokatzeara aurpegiratzen diete, azkeneko atxilotetetan torturak izan zirela gogoraraziz.

Ibon Meñikak deklaratu du epailaren aurrean

Otsailaren 11n, ezker abertzaleko gazte erakundeek (Jarrai, Haika, Segi) aurkako epaiketa hasi zen. Ibon Meñika zamudioztarrak hilaren 17an deklaratu eta onartu zuen parte hartu zuela Ezetz gazteen behin-behinekotasunaren kontrako plataforman, eta bertan harremanak izan zituela Jarraiko kideekin, “baita beste gazte askorekin ere bai”. Haika sortu ondoren, Amaiur prozesu eratzailean parte hartu zuela adierazi zuen. “Kartzelatik irten ondoren Segin sartu nintzen. Handik gutxira erakundea ilegalizatu eta Elorrioren Gazte Topagunearen antolaketan hartu nuen parte”, gaineratu zuen. Beste akusazio guztiak, berriz, ukatu egin zituen.



Atxilotetak, aipatu den bezala, otsailaren 9ko goizaldean egin ziren, 00:10ak inguruan. Polizia nazionalak lezamarraren etxean sartu ziren Ormaetxeren bila. Lagunek Aikor! aldizkariari adierazi diotenaren arabera, poliziek mutila atxilotzeko agindua zuten, baina ez zeukaten etxean sartzeko baimenik, “epaitegiko idazkaria ordu erdi geroago ailegatu baitzen baimen horrekin”. Neska atxilotzeko agindurik ere ez zuten; hala ere, logela arakatu eta Zutabe aldizkariaren ale bat aurkitu zuten; orduan, neska ere preso eroan zuten. “Batasunak Anoetan egindako ekitaldian bota ziren ale batzuk, eta berak bat hartu zuen”. Lagunen esanetan, Alaitzek gaixotasun kroniko bat du, eta polizia-etxetik dei bat jaso zuten senideek, zein medizina hartu behar zuen galdetu zieten. “Abokatuak polizia-etxera deitu zuen, baina han ukatu zioten dei hori egin zutela; geroago, berriz, onartu egin zuten”. Beste alde batetik, *Pika* Zamudiora eraman zuten eta etxea miatu zioten. Argazkiak atera, eta ordenagailua eta CD batzuk

hartu zituzten.

Gazte biak Madrilera eraman zituzten, eta hiru egunez inkomunikatuta izan ziren bertan. Garzonek deklarazioa hartu ondoren, Soto del Realen kartzelaratu zituzten. Otsailaren 19ko asteburuan kartzelaz aldatu zituzten biak: Alaitz Alcala Mecora eraman zuten eta Arkaitz Navalcarnerora.

“Ondo” daude

Senideek biak ikusteko aukera izan dute. “Presio psikologikoaz aparte, ez diete tratatu txar fisikorik eman. “Ondo” daude”, aipatu dute lagunek. Neskaren gaixotasunari dagokionez, behar zuen botikaren orde bestea bat eman nahi izan ziotela adierazi dute, “berak hartu behar zuena garestiegia zelako”. Neska kexatu, eta azkenean eman egin zioten.

Atxilotuen lagunek Zamudio eta Lezamako Udaletara jo dute. “Egin ahal zuten guztia egin dutela erantzun digute; polizia-etxera deitu haietaz galdetzeko, eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Sailari atxiloteten berri eman”.

Susana Martinez, gizarte-hezitzailea



Gaur egungo emakumeen arazoei buruzko ikastaroa egiteko asmoa dute Lezaman. Susana Martinez Ediren Osasunaren Kooperatibako gizarte-hezitzaileak kurtsoaren aurkezpena egin zuen otsailaren 15ean. AIKOR! aldizkaria berarekin egon da berbetan.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Zein da ikastaroaren helburua?

Emakumeek emakume-identitatea bilatzea eta emakumea izateaz harro egotea ditugu helburu. Historian zehar lorpen handiak izan ditugu, baina autonomia hori faltsua da, gizonak bezala jokatu dugulako ohiko rolak utzi gabe. Berrogei urtetik gorako emakumeak kontraesan handian daude: alde batetik familia dute, eta beste alde batetik kanpoko lana. Eta, bai, arlo batean arrakasta izan dezakegu, baina beste arloko beste gauza batzuei uko egitea beharrezkoa da horretarako...

Jaso dugun hezkuntzak eragin handia dauka horretan...

Menpekotasuna, ziurgabetasuna eta abarrek baloreak barneratu ditugu ohituraz eta horren ordez seme-alabak eta senarra eman dizkigute jabetzatzat. Oso lotura estua dugu familiarekiko eta etxetik kanpo lan egiten duten askok egun osoa ematen dute etxeko gauzez kezkatuta... Gaiuzama hori kexa bihurtu dugu, gure bikoteari erantzuki, eta bera ere txarto sentitzen da: Zertan lagundu ahal dizut etxean?... Beste alde batetik, emakumea izatea ama izatearekin erlazionatzen da sozialki eta umerik ez duena ez dago ondo ikusita, nahiz eta profesional bikaina izan. Baina etxea eta

lana adostea zaila da eta askok seme-alabarik ez izatea erabakitzen dute. Bi arlo horiek adostu behar dira. Gizonak ere hori aldarrikatzen hasi dira, aita-papera exijitzen hasi dira.

Zer egin?

Desabantailan gaudela baina ez garela desabantaila konturatu behar dugu.

“Emakumeok ez gara ahalguztidunak eta zama batzuk bikoteari eman behar dizkiogu, gure emakume-identitatea aurkitzeko”

Barneratu ditugun balore horiek aldatzen saiatu arren, seme-alabei transmititzen jarraitzen dizkiegu, emakumeok kultura transmititzen dugulako. Amak eta aitak, biek, seme-alabak hezitzen dituztenean aldatuko da hori. Baina bikotearekin umeen heziketa konpartitzea seme-alabei jabetza bezala uko egitea da, eta emakume gehienek ez dute nahi. Horrezaz gainera,

seme-alabek etxetik alde eginda, hutsik gelditzen dira eta ilobengan bilatzen dute jabetza hori, proiektu pertsonala izaten ez digutelako irakatsi.

Independentzia ekonomika lortuta, menpekotasun emozional itzela dugu emakumeok...

Bai, eta oso zaila da gainditzen. Dependentsia hori atsekabe bihurtzen da. Eta atsekabe hori botereei interesatzen zaie, kontsumoaren oinarria baita: nire senarra beste emakume batengan ez erreparatzeko, eder, oso eder egon behar naiz.

Gizonak etxean haien lekua aldarrikatzen hasi direla aipatu duzu lehen.

Samurtasuna, beldurra, aitatasuna... kendu zaizkie eta hori ere zaila da haien-tzat. Emakumea guneak irabaziz joan den heinean, gizon gaztea ere etxean hainbat eskubide duela konturatu da. Konpartitzean dago gako. Emakumeok ez gara ahalguztidunak eta zama batzuk bikoteari eman behar dizkiogu, gure emakume-identitatea aurkitzeko. Baina, noski, konpartitzea zaila da, eta botereari ez zaio interesatzen emakumeak eta gizonak ados jartzeari, horrela gizartearen benetako arazoaz ez baikara ohartzen: gizarte-klaseen arteko ezberdintasuna.

"Partidu bakoitzean ikastea dut helburu"

Erika Vázquez (Iruñea, 1983-02-16) Athleticen emakumeen taldeko fitxaketa berria da. Lagunak taldetik etorritakoa, zazpi urterekin hasi zen futbolean aritzen. Golegile handia da iruñearra: Superligaren aurreko denboraldian hogeitaz inguru sartu zituen, eta nazionalean hogeita hamar inguru.

Zer deritzozu Athleticen filosofiari?

Ondo deritzot behetik dauden gazteak gora igotzeari.

Oso gogor hasi zarete Superligan. Aurten ere titulua lortzeko itxaropenik?

Lagunak taldean nengoela ez nuen buruan tituluak irabazterik, baina hemen izanda... Bai, izugarri gustatuko litzaidake.

Ondo konpontzen zara Ebarekin aurrealdean?

Bai, Ebak laguntza handia ematen dit, lan zikina egiten didalako. Hasieran kostatu egin zitzaigun, berak bakarrik jolasten baitzuen beti aurrealdean, eta nik ere bai. Baina partida askoren ostean primeran moldatzen gara. Beste taldekideekin ere oso ondo konpontzen naiz.

Eta entrenatzailearekin?

Ondo ere bai. Futboleak hasi nintzenetik talde berean egon naiz, eta Athleticera etortzeak beldurtzen ninduen apur bat... Oso urduri ibili nintzen lehenengo egunean, ez naiz sekula egon hain larri... Baina ondo irten zen azkenean.

Nahiz eta aurrelaria izan, erdialdean jokatu duzu inoiz. Zelan esperimentatzen?

Ona, hala ere, aitor-tu behar dut ez dudala balio erdialdean jokatze-ko.

San Mamesen jokatzeko gogorik baduzu?

Bai, bertan jokatzeko itzela dela esaten didate guztiek.

Zein da bereziki gogoratzen duzun gola? Zein talderi sartu zenion?

Bartzelonari. Lagunak taldean nengoen, eta Superligara igotzeko txartela eman zigun gol horrek.

Baduzu helburu finkorik futbolean?

Ez dakit, tituluak irabazteko gogoak duen talde batean jolastu nahi izan dut betidanik. Eta nire helburuak?

Ba, garatzen jarraitu, ikasten

jarraitu partida bakoitzean, urte bakoitzean...

Zein da gustukoena duzun lehen mailako futbol taldea?

Bartzelona, aurten talde ona dauka, oso ona...

"San Mamesen jokatzeko gogoak dut, itzela dela esan didate"

Nor izan da historiako futbolaririk onena, zure ustez?

Gaur egun, Ronaldinho, baina Stoichkov izan da nire kutuna betidanik

Futbolaz aparte, badaukazu lanik?

IVEFko lehenengo maila ikasten nabil Gasteizen, eta oso gogorra da.

Eta baduzu lagunekin egoteko astirik?

Apur bat gehiago izaten nuen lehen, baina orain ezertarako ere ez. Zure esparruan murgiltzen diren lagunak izaten saiatzen zara beti, ordutegi berdina edukitzeko... Beste alde batetik, ez naiz aspalditik etxera joan... Hemendik ordu bira dago, eta ikasketak direla, futbola dela, ez daukat denbora librerik.

Zelan hartu du zure familiak zu hona etortzea?

Alaba bakarra izan arren, ondo hartu dute. Asko animatzen naute.



Testua eta argazkia: Miren Fernandez

Carlos Arranz, espeleologoa

“Miseria asko daude behar honetan”

Kobazuloak esploratzea eta ikertzea helburutzat ditu Espeleologiak. Carlos Arranz sondikarrak ondotxo ezagutzen du lan hori, izan ere 15 urterekin sakonki sartu zen leizeen munduan. Aikor! aldizkaria solasean izan da 23 urteko gaztearekin.

Testua: Itxaso Marina

Nola hasi zen zaletasuna?

Lagun batekin joan nintzen Dimako kobazulo batera, eta galdu ez ginenean... orduan hasi zen kontua. Talde batean izena ematea erabaki eta Bilboko GAES elkartearen nago gaur egun. Inor egon ez den guneak esploratzeak erabat erakartzen nau. Beste alde batetik, behar honetan aritzeko taldeko lana ezinbestekoa da eta hori ere oso aberasgarria da, nire ustez. Dena dela, nik hobitzat daukat; beste taldekide batzuek, berriz, topografia, hidrologia eta abarrek ikerketak egiten dituzte, lantxoak argitaratzen dituzte...

Kirola eta zientzia batzen ditu Espeleologiak. Behar gogorra, ezta?

Bai, baina ez nuke esango mendiko kirolaririk gogorrena dela, ezta arriskutsuena ere.

Picos de Europa egindako espedizio batean



Soka estatikoa erabiltzen dugu, eta teknika ikasita nahikoa da praktikatu ahal izateko. Ez da beharrezkoa egundoko kirolaria izatea; ekinaren ekinez hartzen dira indarra eta trebetasuna. Espeleologiak exijitzen dituen ezaugarri bakarrak gogoa eta irmotasuna dira, izan ere miseria asko daude behar honetan: hotza, gosea, nekea... Eta kobazulora sartu ondoren ezin da puntu batean gelditu atsedena hartzen; aurrera edo atzera egin behar da.

Nondik ibiltzen zarete?

Talde bakoitzak bere aldea dauka ikerketak egiteko. Gorbeia eta Kantabriako Resines dagozkigu guri. Beste alde batzuetara joaten garenean laguntzaile moduan egiten

“Espeleologia ez da mendiko kirolaririk gogorrena, ezta arriskutsuena ere”

dugu. Egon gara Izaban, Ezkaurren, Picos de Europa, Aralarren, Mexikon...

Dirulaguntzarik izaten duzue espedizio horiek egiteko?

Federazioak jasotzen du, baina oso diru gutxi da, eta arropa eta materiala garestiak dira. Instituzioetatik lortzen dugun diru bakarra zerbaiten truke da: kobazuloak garbitu, lanak argitaratu... Orain Bizkaiko kobazuloen katalogoa egiten gabiltza bertoko talde guztien artean, eta diru apur bat

“Instituzioetatik lortzen dugun diru bakarra zerbaiten truke da”

ikusiko dugu... Espeleologia krisian dago, gure Federazioa desegin eta Mendiko Federazioaren barruan sartu nahi gaituzte. Hori dela eta, Euskal Herriko talde guztiek elkarrekin lan egiteko asmoa dauka Euskal Espeleologoen Elkarteak, ea denon artean gauza interesgarriak egiten dugun.

Zein da egin duzun sarrerarik gogorrena? Aralarreko R1. Euskal Herriko tontorrik sakonena da, 580 metroko garapena dauka eta oso estua da eta egundoko hotza dago bertan... Beste alde batetik, Euskal Espeleologia Laguntza taldearen lana goraipatu nahiko nuke. Boluntarioak dira eta espeleologoak erreskatatzen dituzte.

Noizero praktikatzen duzu?

Boladak ditut, baina taldekide batzuk aste-bururo joaten dira kobazuloetara. Espeleologiak denbora asko eskatzen dizu, eta hilabete batzuk egin gabe emanez gero, trakets ibiltzen zara.


Zein kobazulo daukagu Gorbeia inguruan?

Supelegor eta Itxulegor dira ezagunenak, bisitatzeko modukoak. Baina Hotzabide (Egarriturriko leizea) oso interesgarria da: 12 kilometroko garapena eta -200 metroko sakonera ditu. Hotzabide eta ITX 80 zulo hidrologiko bera dira, eta biak lotzeko asmoa daukagu. Posible bada, 25 kilometroko garapeneko zuloa aterako da.

Korrika 14, ni ere bai

Korrika badator eta herria, herritarra, mobitzen hasi da. Gaur atzo baino gehiago, euskara daukagu buruan, bihotzean, hanketan ... Gehiago bizi gara euskaraz edo euskara biziago daukagu. Beno ulertzen didazue, ez duzue itzultzailerik behar, bestela erduzie euskaltegira eta itaundu, galdetu, pregunteu...

Testua: Belen Gana / Argazkiak: Kaleko



Orreagan hasi martxoaren 10ean eta Bilbon martxoaren 20an amaitu arte Korrika-14k herriz herri aldarrikatuko du euskararen lurrean gure hizkuntza zabaldu behar dela. Eta “Ni ere bai” leloa errepikatuz, norberaren konpromisoa indartu gura duela, euskaraz bizitzeko aukera erreala zaindu eta lantzeko norberak hartu behar duen arduraz ohartuz eta lagunduz.

Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea du helburu Korrikak, eta gaueskola

*“Korrika laguntzaile
biltzeaz gainera, hainbat
kultur ekintza egiten
gabiltza euskal Euskal
Herri osoan”*



zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko eta datozen garai berriek eskatzen dituzten erronka guztiei aurre egiteko dirua biltzea ere bai.

Korrika laguntzaile biltzeaz batera, kultur termometroa bera ere igo egiten dugu egunetara Euskal Herri osoan: antzerki-emanaldiak, mahi-inguruak, musika-emanaldiak, bertso-saioak...

AEKk 1980.urtean lehen Korrika antolatu



zuenetik, makina bat lan burutu ahal izan du euskara eta euskal kultura suspertzeko helburuarekin, eta horretarako herritarren laguntza guztia ezinbestekoa izan dugu. Txorierrin ere alboan izan ditugu beti eta lerro hauetatik eskertu gura dugu, antolatuta dagoen Korrika batzordeak eta laguntzen duen herritarra, baita euskara ikasteko ardurartzen duena ere.

Herri bakoitzeko korrika batzordeak ekitaldiak antolatzen dabilta eta aldizkaria zuen esku egon orduko guztiak egongo dira prest, herri bakoitzean iragarrita egongo dira. Hona hemen, besteak beste, egongo denaren aurrerapena: otsailaren 28an Pirritx eta Porrotx pailazoak Txorierriko eskolarteko haur hezkuntzako umeentzat, eta martxoaren lehen astean malabare-tailerrak eskoletan. Martxoaren 4an Txorierriko korrikako aurkezpena Larrabetzuko Hori Bai gaztelekuan egingo dugu..

Martxoaren 18an (ostirala) bertso-afaria Zamudion, Peñagarikano, Igor Elorza eta Etxahun Lekuerekin; sarrerak salgai dagoz.



Herri bakoitzean bazkari edo afaria egiteko prestaketetan dabilta.

Korrika Txorierrira martxoaren 19an etorriko da, Erandio Goikoatik arratsaldeko 6etan sartu eta herriz herri ibilbidetxoak egin ondoren Larrabetzutik Galdakaorantz joango da. Korrika itzaroteko herri guztietan gabiltza ekitaldiak prestatzen: fanfarriak, trikipoteoak, umeentzako tailerrak, txokolatadak, kontzertuak, afariak. Txorierrin ere ekitaldi nagusi bat egiteko ahaleginetan gabiltza.

Korrika 14 ona igaro dezagula, disfrutatuz, euskarari lagunduz eta euskaraz biziz!



“Amerikanoa naiz, euskal jatorriko amerikanoa”

**Sabino Arana Kultur Elkar-
goaren Patronatu Batzak
Sabino Arana sariak banatu
ditu joan dan zezeilaren
hamarrean. Kultur Elkar-
goak euskal abertzaletasu-
naren sortzailearen jaiotza-
ren urteurrena ospatuz, XVI.
edizinoan, besteak beste,
Dave Bieter saritu dau
Euskaldunak Munduan ata-
lean.**

*Testua: Udane Goikoetxea
Argazkiak: Udane Goikoetxea/
Sabino Arana KulturElkargoa*



Bietertarrak ezagunak dira Boisen. Sustraiak hemengoak daukaz, Lekeitiokoak eta Larrabetzukoak, baina Dave Bieter Boiseko alkatea da. Aitita larrabetzuarra zan. 1913an artzain joan zan Boiser. Sasoi haretan euskaldun asko joaten zan artzain. Orduan, bi edo hiru milioi ardi egozan Idaho uriburuaren inguruan! “Gaur egun berrehun edo hirurehun mila egongo dira...”

Boiser euskaldun asko joan zan. Batzuk itzuli ziren, baina beste asko Ameriketara geratu ziren. Gaur egun, hamar-hamabost mila euskaldun izango dira Boise inguruan. Idahon Basque Block edo Euskal Blokea deritxon kalea dago. Euskal erreferentzia da. Bertan dagoz Euskal Etxea, Gernika taberna eta, zelan ez, Boiseko herriarren zaletasun gastronomikoetan sakon eragin gura dauan Euskal Dendea: Euskal Merkaturia. Ikastolea bere badaukie Idahon. Ia mende bat joan da lehenengo euskaldunak Idahora heldu ziranetik. Urteotan euskal hazia sendotu eta sustraitu da. Eta gaur egun bere Ameriketako eta Euskal Herriko euskaldunen arteko harremanak estuak dira.

Dave Bieterek Euskal Herrira bidaiatu dau. Agendea bete-beterik izan dau egunotan. Batetik bestera ibili da. Gernikara, Larrabetzura... Baina, egin deusku tarterik. Bilboko Domine hotel dotorean ipini dogu zitea eta kafe bat hartuz, bide batez, barriketaldia egin dogu.

AEBetako uriburu bateko lehenengo alkate euskalduna zara.

Uriburuko lehenengo alkate euskalduna bai. Nik ez dot besterik ezagutzen.

Zeure aitite larrabetzuarra zan. 1913an joan zan Idahora.

Bai, 1913an, aspaldian. Lekeitiar batekin ezkondu zan. Lau urte pasatzera joan zan, baina ez zan itzuli sekula. Ezkondu eta bertan geratu zan.

Sasoi haretan artzain joaten zan jenterik gehiena.

Bai, garai haretan gure estaduan, Boise inguruan bi milioi eta erdi ardi egozan! Esate baterako, gaur egun... berrehun edo hirurehun mila ardi dagoz. Nire aitita bertara joan baino lehenago euskaldunak hasi

“Boisen hamabost mila euskaldun dagoz. Telefono gida hartu ezkerro, A eta Z letratik hasten dan abizen ugari topatu daitezkez”

ziran itsasoa zeharkatu eta artzain moduan joaten. Ingelesik jakitea ez zan beharrezkoa... euskaldun asko joan zan; batez bere, Bizkaitik. Beste estaduetan oso bizkaitar gitxi dago, baina Idahon gehienak bizkaitarrak dira.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren belaunaldikoak aitatu behar doguz. Gaur egun, zenbat euskaldun dago?

Idahon, Boise inguruan ba, hamar mila, hamabost mila. Telefono gida hartu ezkerro, A eta Z letratik hasten dan abizen asko dago. Etxebarria asko... Hilerrira joan ezkerro, euskaldun abizen ugari irakurri daitezke.

Sasoi baten Idahora joan ziran euskaldunen seme-alabak, senideak, gaur egun joaten ete dira euskal etxeetara?

Bai, bai. Batez bere hiru edo laugarren belaunaldikoak joaten dira dantza egitera. Gazteak. Berrehun bat gazteko taldea.

Ikastolea bere ezin itxi geinke aitatu barik. Zenbat ikasle eta irakasle dabil ikastolan?

Irakasle bi dagoz. Eta ikasleak, berrogeiren bat, gitxi gorabehera. Bi urtetik sei urtera bitartekoak danak. Hurrengo pausua sei urtetik gorakoentzako kurtsoa jartzea izango da. Euskaraz ikasten da bertan.

Boisen urtero-urtero egiten dozue ‘Jaia’, euskal jaia. Bost urtean behin ‘Jaialdia’.

Orain urte asko hasi zan ohiturea. San Inazio egunean egiten dogu bi edo hiru eguneko ‘Jaia’. Urtero egiten da. ‘Jaialdia’ bost urtean behin egiten da. Joko olinpikoen moduan! Aurten egingo da, uztailean. Jente asko batuko gara. Euskal Herriko



Bilboko Domine hotelean zitea euki eben Bieterek eta Udanek



jentea gehiena. Aurten Galdakaoko dantzariak, aizkolariak izango doguz 'Jaialdian'. Kaliforniatik eta Nevadatik bere jente asko etorten da Boisera. Ameriketako euskaldunak alkarregaz batzeko aukerea izaten da. Giro ona egoten da bost egunez.

Urtean zehar egingo dozuez ba prestaketak, entseguak...

Bai, bai. Aurten, gainera, nire lehenengo jaialdia da alkate moduan...

Jaialdian edo urtean zehar izaten dozu Txorierriko txakolinik?

Kar-kar-kar! Bai, beharko geunke! Ideia ona da.

Atlantikoaren beste aldean, ezagutzen gaitue, fama ona daukagu euskaldunok?

Uste dot baietz! Orain urte asko joan ziran euskaldunak bertara. Hasiera haretan euskaldunek zikin fama eukien —aspaldiko egunkarietan irakurri dot—. Gero, urte batzuetara, zintzo, langile fama! Orain 30 urte euskaldun bat izan zan Boiseko poliziaren jabea. Harrezkero behintzat ez zan sekula izan euskaldunik herriko kartzelan. Bueno, igual jarraitzen da, baina halako fama eukan euskaldunak. Boisen euskaldunen fama oso ona da.

Euskaldunak ezeze, amerikanoak bere bizi dira Boisen. Kaliforniatik, esate baterako, jente asko joaten da. Zer dala eta? Leku segurua dalako...

Bai, Boisen presino gitxi dago. Jenteari zabalik dago. Leku dotorea eta zabala da, lasaia. Hirietako jente asko etorten da. Boisen, *Oestean*, baltz gitxi dago, adibidez. Idahotik ez, baina ordu erdira-edo mexikano asko dago. Azken aldian Bosniatik eta Errumaniatik dator jente asko.

Bertako euskaldunik gehienak errepublikanoak dira. Dave Bieter demokrata.

Bai, nik uste dot *fifty-fifty*. Lehenago

demokrata gehiago egoan. Pete Zenarruza, adibidez, errepublikanoa da. Ez dakit, *fifty-fifty*. Ni demokrata.

Presidentetzarako hurrengo hautagai demokrata Dave Bieter?

Kar-kar-kar! Buf! Ideiarik bere ez. Hemendik hiru urtera alkatetzarako hau-

*“Demokrata
batentzat larregi da
presidentetzarako
hautagai izatea Idahon!”*

teskundeak izango dira. Agian estaduko gobernadore izatea edo halango aukerarik izango da. Baina, buf! Demokrata batentzat larregi da hori Idahon. Ja, ja!

Badakigu Txorierri institutuko zuzendaria Boisera joaten dala. Ezagutzen dozu?

Jose Luis Egiluz, bai, ezagutzen dot! Gaur egun euskaldun gitxi etorten jakuz, baina

mundua gero eta txikiagoa da. Boiseko neska bat Euskal Herrira etorri zan gazte-lera ikastera. Eta begira zelan diran gauzak, gaur egun Jose Luis eta biak Boisera etorten dira sarritan. Nire anaia bere Euskal Herriko neska bategaz ezkondata dago. Gaur egun harremanak egitea errazagoa da. Ikasleek asko bidaiatzen dabe... Nevadako unibertsitatean euskarazko gai bat dago. Hango zuzendariak esan eban hemendik hamar edo hogeitaz euskaldunak sakabanatuago egongo dirala. Nik uste dot Boisen behintzat euskaldunak beti egongo dirala. Internet eta gaur eguneko teknologiaz harreman estua mantentzen da.

Karmelo Etxenagusia obispoa bere ezagutzen dozu. Behin baino gehiagotan bidaiatu dau Boisera.

Bai, izan dot ezagutzeko aukerarik. Ni alkate izendatu nindutenean Etxenagusiak egun berean jakin eban albistea. Nire aitariaren arrebari ordu gitxira esan eutson. Nire izeba oso pozik jarri zan. Batetik,



Boiseko ikastolako umeak. Andereñoak Izaskun Kortazar dau izena eta sondikarra da. Ikastolan berrogeiren bat ikasle dagoz

obispoak emon eutsolako barria, eta, bes-tetik, irabazi egin nebalako. Sabino Arana saria jaso dodanean be Boiseko mutil batek berehala jakin eban. Interneten sartu eta albistea errez-errez topau eban. Bizkaiko jente asko joaten da.

Euskal Herrian zein aldaketa ikusi dozu azken hamar urteotan?


Askoz ere politagoa da. Guggenheim, tranbia... Askoz ere garbiago dago Bilbo. Ekonomiak gora egin dauala nabarmen-tzen da. Iaz, bertora bidaiatu nebanean ezin neban ulertu hemengo politika giroa. Orain 30 urte egon nintzen lehenengoz — Francoren garaian, 14 urtegaz— eta iaz giro bera, orduko giro bera edo antzekoa topau neban. Egunkariak ixten eta... halan-go presinoak. Urtebete joan da —oso ikus-pegia txikia daukadan arren— giro hobea topau dot. Ibarretxe lehendakaria

*“Iaz berton izan nintzan,
eta Frankoren garaiko
giro bera topatu neban”*

Madriren egotea uste dot iaz pentsaezina zala. Ekonomia gaiak, politikan pausu batzuk falta dira, baina nik iaz baino hobeto ikusten ditut gauzak nire ikuspegitxo-tik.

Zu zeu zer zara? Amerikano euskalduna,

Boise, euskaldunen etxea



euskaldun amerikanoa, amerikanoa edo euskalduna?

Ni amerikanoa naiz. Euskal jatorriko ame-rikanoa. Bidaiatzerakoan, adibidez, erra-zagoa da. Argi auki behar da hankak non daukaguzan. Oinak herrian daukadaz.

Lekuan lekukoa errespetatu behar da. Nik hori argi daukat, baina paperetan amerika-noa naizela agertzen da.

Eta amerikano ala euskaldun sentitzen zara?

Bihotzean euskaldun sentitzen naiz.

Hiru urte eta aurrera

**Txorierritaron aldizkariak urteak
bete ditu lagunen artean**



Urtarrilaren 27an, osteguna, Aikor! aldizkariaren 3. urteurrena ospatu genuen Lezamako Txokoan.

Bertan euskal prentsa omendu nahi izan du eta, bide batez, gainean daukagun zama salatu: hitzaren isiltzea. Egunkariatik Berriara: Xabier Oleagak eta Martxelo Otamendik Egunkariaren egoera judiziala jakinarazi eta Berria proiektuari buruz egin ziguten berba. Gotzon Barandiaranek Arrakalak poema-liburuan bildutako olerkia irakurri eta Kauta musika taldea zuzenean aritu zen emanaldi bikaina eskainiz.

Horiei guztiei bidea emateko luxuzko aurkezlea izan genuen: Udane Goikoetxea Bizkaia Irratiko esataria.

Argazkiak: Koldo Peñafiel



Asko dira txorierritarren aldizkariari aurrea jarraitzen laguntzen diotenak. Guztiak ditugu buruan eta ematen diguten ezinbesteko laguntza eskertu nahi diegu guztiei. Aurtengo Aikor! sariak Alberto Legarretak eta Politeknika Ikastegia Txorierrik jaso dituzte. Lehenengoak gure kolaboratzailerik fidelenetariko bat delako eta, bigarrenak, bezeroa izateaz gainera, lan apartekoa egiten duelako irakaskuntza mailan.



Akatsez akats ikasi dugu, baina Aikor! gaztea da oraindik eta oso bide luzea daukagu aurretik. Bide horretan zuen laguntza izan dugu orain arte, eta datozen urteetan ere hala izatea espero dugu. Hurrengo urtean hitzordua izango dugu Lezamako Txokoan berriz ere.



“Goyaetarako proposatuta adore-injekzioa izan da

Guztiok ezagutzen ditugu zinemagintzako Goya sariak, baina golardo horiek argazkigintza kien gehienok. Urtarrilaren 31n 20. urteurrena ospatu zen Zaragozan eta Joseba Apezetxea Argazkilarien Federazioaren presidentea. Argazkigintza kategoria berritu da eta Joseba Apezetxea Argazkilarien Federazioaren presidentea. Argazkigintza kategoria berritu da eta Joseba Apezetxea Argazkilarien Federazioaren presidentea. Argazkigintza kategoria berritu da eta Joseba Apezetxea Argazkilarien Federazioaren presidentea.

Sari ezezagunak dira gehienontzat; azaldu apur bat haien nondik norakoak...

Aragoi eta Zaragozako Argazkilarien Elkartek sortu zituen duela 20 urte eta Espainiako Argazkilarien Federazioaren babesarekin. Zinemagintzako Goya sariak baino zaharragoak dira, beraz. Sariak izena dela eta, epaitegira jo eta gure alde egin dute. Espainiako Zine-Akademik golardoaren izena aldatu beharko du apur bat... Edizio honetan horrela egin dutela uste dut.

Argazkigintzako Goya sariak urte birik behin banatzen dira, eta lau kategoria daude bertan: industria eta publizitatea, erretratua, ezkontza eta sormen librea. Aurten 680 argazki batu eta 10 aukeratu dira kategorian bakoitzean. Jose Veron eta Rafael Navarro 2001. eta 2003. urteko sari-dunek eta Jose Hoyos Venezuelako argazkilaria eta Estatu Batuetako Argazkilarien Federazioko kalifikazio epaileak osatu dute epaimahaia.

Zuk aurkeztutako 6 argazkietatik 2 proposatu zituzten sormen libre kategorian. Saririk ez zenuen lortu, baina hala ere poza handia, ezta?

Bai, adore-injekzioa izan da. Argazkigintza lanbidetzat daukat, baina

*“Ez dut saririk lortu,
baina estatuan oso
argazkilaria onak daude,
eta nire argazki bi
proposatuta egon izana
saria da niretzat”*

artista moduan ere lantzen ditut argazkiak eta besteren batek zure lana baloratzea behar duzu batzuetan, bestela... Saririk lortu ez arren, oso pozik nago. Estatuan oso argazkilaria onak daude eta nire argazki bi Goyaetarako proposatuta egon izana saria da niretzat. Eta golardorik lortzea ala ez bakoitzaren gustuaren arabera da.



Joseba Zamudioko estudioan

Beste alde batetik, zure munduaren ikuskeraren jendearekin erakusteko aukera ematen dizute halako ekitaldiek. Eta jendeak ere hainbat interpretazio egin ahal du zure lanaren gainean, izan ere argazki berak esanahi ezberdinak izan ditzake niretzat, zuretzat edo besteren batentzat.

Aurkeztu zaren lehenengo aldia izan da aurtengoa. Berrir aurkezteko asmorik?

Bai...

Goya lortu arte?

Ez, ez. Sariak eskuratzea ondo datorkio egindako lanari, baina nik ez daukat helburutzat. Argazki onak egitea eta argazki onak egiten direla jendeak ikustean datza kontua. Itzel handiko profesionalen lana albo batera utzita, argazkigintza ez da orokorrean behar bezala baloratzen,

egotea la”

tzan ere ematen zirela ez gene-
ezetxea Zamudioko Oskarbi

“Argazkigintza ez
da behar bezala
baloratzen orokorrean”

nire ustez. Botoia sakatu baino ez dela
egin behar pentsatzen da askotan eta, bai,
botoi hori sakatzea oso inportantea da,
baina beste alderdi asko ere zaindu behar
dira zirkulu biribil-biribila lortu arte:
konposizioa, argia, kolorea, kontrastea...

**Laster argazki erakusketa egiteko asmoa
omen daukazu...**

Arquitectura de azules izango du izenbu-
rua eta Mungian aurkeztuko dut lehe-
nengo aldiz. Handik beste leku batzuetara
eramateko asmoa daukat. Bilboko erai-
kinei egindako argazkiek osatzen dute
erakusketa eta bertako udaletxera era-
mango dudala uste dut.


Orain dela 6 urte Saharan egon nintzen
eta bertan ateratako 30 argazkiekin beste
erakusketa bat egin nuen Bizkaiko eta
Gipuzkoako hainbat herritan. Aukera
polita izan zen jendea Saharako bizimo-
duaz eta arazoez ohartzeko.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Goya sarietarako proposatutako argazkiak



“Argazki hau Alacanten egin nuen duela urte bat. Jubilatu bi hondartzara
joan dira atsedena hartzera. Hodeiek euria dakarte, baina haiek trankil
daude, arrantza egiteko tresneria prestatzen, tarte atsegina pasatzeko
prest”



“Arraina dela esaten dute askok, baina ez, hosto bat da. Hori ere hondar-
tzan topatu nuen. Bere testuingurutik atera eta beste itxuraren bat ematea
pentsatu nuen. Kolore, forma eta kontrasteekin jolastu nintzen... Izugarri
gustatzen zaizkit hondartza eta kolore urdina”



Euskaldunaren anekdotak

Mendebalde Kultura Alkarteak argitaratuta heldu jaku edonori irakurterreza egingo jakon liburu hau. Ganera, entzuteko CD-a bere badakar. Liburuaz eta bertan dagoan munduaz berba egiteko Juan Luis Goikoetxea bere egileagana jo dogu

Testua: Bestorrene/Argazkiak: Juan Luis Goikoetxea

Nondik sortu da liburu eta CD-aren ideia?

Liburu berez, ezustean sortu da. Eskari bat egin eustien Bizkaia Irratitik goizero-goizero zeozer kontatzeko, eta anekdotakaz hasi nintzen. Aita zana kontalari ona zanez, asko neukazan magnetofon jasota, eta beste asko entzunak. Horreri norberari egunero-egunero gertatuak gehitzen badeutsazuz, ba hainbat batzen dira. Bizkaia Irratian egunero anekdota bat kontatzen hasi nintzen, kurtso guztian goizero-goizero 7ak eta laurdenetan. Kontatuta eta grabatuta egozanez, ba zergaitik ez ekarri idatzira pentsatu neban, eta holan urten dabe kurtso guztiko anekdotak, liburu baten batuta.

Liburuan agertzen danez laguntzak izan dozuz.

Iñaki Gamindek CD-a sortu dau eta anekdotak bertan kokatu. Udane urte guztian irratarako editazio lana egiten ibili zan, eta testuari gain-begirada be egin eutsan. Anekdotak neureak dira, neuri gertatuak, neuri kontatuak... Ze bitxia dan, jendea irratia goizetan entzun eta "neuk be ba jekoat anekdota bat" esanez etorten jatan, eta berak niri kontatu neuk kontatu dagidan, nik forma emoten izen deusat. Beti formato laburrean, ze horixe zan irratisaioak eskatzen ebana. CD-ko ahotsa neurea da, Udane lokutorea izan da.

Anekdotak anonimoak dira edo izen-abi zenak daukiez?

Norberarenak kontatzea erreza da, baina beste batzuk ez dakizu protagonisten gogokoak izango diran ala ez, eta izena aldatzen da. Hemen agertzen bada Felipe dala, ba Modesto da, Txorierrin gertatu

“Noreberaren anekdotak kontatzea erreza da, baina izen batzuk aldatu dodaz protagonistak ez mintzeko”

Egunero anekdota bat kontatzen eban Juan Luisek irratian. Hortik sortu zan liburu egiteko ideia



bada Mungian jarriko dot. Ez dakizulako noraino onartuko dauan, ze batzutan baragarriak be badira gertaerak eta protagonista mindu egin leiteke. Batzuk izendunak dagoz, Mikel Zarateren batzuk, Txomin Solabarrieta eta Lopategi bertsolariarenak. Polita bada pertsonaiaren izenak sartzen dodaz, baina baragarri, moskorragaz edo agertuten bada, edo kokolotzat gelditu bada, izena aldatu egiten dot. Eurek bizi ez arren euren etxeak bizi dira eta horregaitik izenak aldatu egin dira.

Nongo anekdotak dira?

Euskal Herrira begira dagoz, Iruñea agertzen da..., baina gehienak Bizkaiko lurretakoak dira. Eta hor barruan Mungialdea eta Txorierrin agertzen dira gehienbat. Berez halan gertatu diralako, eta beste batzutan ezaguna dozun inguruan kokatzen duzulako, hango izakera, hango berbakera eza-gunago dozulako.

Zein da erabili dozun idazteko era?

Ahozkoa da ia-ia ikutu barik. Sukaldaritzan gertatzen dan moduan

“Ez da liburu literario bat, ohiturarik ez daukanak irakurtzeko modukoa baino”

arrain freskoa gura izaten da, ez albardau-albardau eginda. Ahalik eta ikuturik gitxien eginda, arrain freskoa, perejil apurtxu bat eta orio ona bota, beste barik. Belarrirako dira, ahozkotik ahal danik hurren, transkripzioa ez bada, hurrago ezin dot egin. Eta zeozer gehitu badot herriz-herriko ahozko esaerak dira; idatzizkoak badira Frai Bartolomerenak, orain 200 urtekoak, baina ahozkoak beti.

Norentzat dago idatzita liburu?

Edonork irakurtzeko modukoa da. Ohiturarik ez daukanak irakurtzeko modukoak be bai. Asmoa ez da liburu literarioa egitea, irakaskuntzakoa. Arina izan gura dau, edonork metroan doala hartu



Aita kontalari ona zan. Berarengandik jaso ebazan istorio asko

eta, ene, anekdota bat irakurriko dot. Bik esan eustien, gizonezko eta andrazko batek, inoiz libururik irakurri ez dabenak, badabiltzala ez dakit zenbatgarren anekdota irakurtzen, eta esan neban, harrigarria! Eta zergaitik? ba eurentzako ulergarria dalako. Batek, berak ulertzen ez dituan berban zerrenda emon eustan, eta liburu guztian 23 ziran. Beraz, liburua gitxi irakurritako irakurleentzat da, eta asko irakurritakoentzat denbora pasa moduan hartzekoa.

Zein da liburuan agertzen dan mundua?

Irakurtzeko denbora pasa dan arren, berez fondoak sakonagoa da. Azken baten herrietan argazki liburuak egiten doguz, baina mutuak dira. Guk argazki liburua egin dogu, baina berbaz. Basurtuko ferira joan dan bat agertuko da, behiak erosten dago eta anekdota bertan. Estanpak dira, hemen bizi izan doguzanak. Ez dira ez txisteak ez literatura, gertaerak dira, estanpak, argazkiak ahoz. Ez dogu gura euskalduna arlote moduan agertutea. Halan, Ameriketako agertuten da, Londresen, telebista ikusten, hegazkinean, idiakaz soloan, laietan...

Danetariko anekdotak dira, baina gertaerak, ez asmatuak. Mundu bat oraingoa da, baina beste bat desagertuta dago, neuk be ez dot ezagutu, nik artekoek kontatutakoagatik dakit, orain 100 urte baino gehiagokoak dira asko. Esaterako, Gamizetik

Oiloak auzoan

Nire amaren denporako oiloak soltuan ibiltzen ziran aldea-etxeetan. Kontua da, oiloak burua baino pikua arinago erabiltzen dauan legez, sarri pasetan zirala bestaldera, auzoko ortuan astraka egiten, eta uxatu behar ziranean inork ez ekiela zein oilo norena zan.

Nahastea handiago egiteko, oilo barraban batek arrautzatxua erruten eban edonon. Orduan komediak! Zein etxetakoa zan arrautza hori?

Bakeak egiteko –dino gure amak– koiuten zala zorigogorreko oilo hori eta portale munara eroaten zala. Largau eskuetatik eta zein aldetarantz joian

“Ez dira ez txisteak ez literatura, gertaerak dira, estanpak, argazkiak ahoz”

lehenengo autoa pasatu zanean abadeak sermoian haxe esan eutsien: " Arin etorko da, eta zuek pareu zaiteze munetan baina bidetik metroetara atzera gero!". Hementxe bertan grabatutakoa be badaukat: bonbilea heldu zanean, "Gregori" batek dino kandlea bonbileari biztu ezinik ibili zala, bira eta bira eta biztu ez. Horrek esan gura dau ezagutu eban lehenengo bonbila izango zala.

Gehiago egiteko asmoa dozue?

Asmoa bai. Mendealde Kultura Alkartea bigarrena egiten dabil, ez da bardina izango baina bai antzekoa. Eta neuk be badaukat gehiago egiteko asmoa, beste anekdota asko daukadaz jasota. Beste batzuk be animatu gura doguz anekdotak idazten, ze ez dago inor anekdotarik gertatu ez jakonik.



oiloa, familia haretakoarenzat izaten zala arrautzea.

Gaur eguneko politiko batzuk be banan-banan Mirandako mugara eroan da bertan askatu leiz. Beherantz edo gorantz abiatu, jakingo geunke norako dabilzan arrautzak egiten.

“Probatuz gero, xakeak betiko harrapatzen zaitu”

Munduan zehar jarraitzaile ugari daukan kirol hau ondoen definitzen dauan berbea oreka dala esango neuke. Alde batetik, gaur eguneko bizimoduagaz bat datozen estrategia, lehiakortasuna, epe labur-luzeko jokaldiak aurreikustea bezalako kontzeptuak ditu ezaugarri, eta bestalde, hausnarketa, konzentrazioa, geldirik eta lasai egotea eskatzen dau, gaur egun hain ohikoak ez diran ezaugarriak. Derio Xake Taldea sortu ebenek kualidade horreek aitortzen deutsoez xakeari, eta zaletasun hutsetik abiatuta, talde baten babesa emon behar jakola pentsatu eben. Pentsatu eta egin. Derio Xake Taldea 1996 urtean sortu zan eta Derioko Gaztelekuan euki dau egoitzea ordutik hona. Eureka egon gara berbetan.

Testua: Fernando Larrondo /Argazkiak: Derioko Xake Taldea

Maisu Handiak igaro dira Derioko taldearen txapelketetatik. Anatoli Karpov argazkian



Probokatzen hasi gaitezan. Kirola ala jokoa?

Kirola, duda barik.

Konforme.Nori bururatu jakon taldea sortzearena?

Gaztelekuko beharginen ekimenez sortu zan 1996an. Berton zaletasun handia egoanez, Bizkaiko Xake Federazioaren bitartez zeozer antolatzeko proposamena egin zan. Honi esker Rafa Alvarez Maisu Handiagaz aldibereko jokaldia antolatu zan, bai eta jokaldi bat “itsuan” be. Hazi hartatik dator gaur eguneko landarea.

Zenbat kide zarie taldean?

Hasi, 5 pertsona hasi ginan. Gero enteratu ginan Aldekoneko Gurea tabernan lehiaketak antolatzen zirala, eta, bertoko giroa ezagutu ostean, batu egin ginan. Gero, web orriaren bidez ezagututa, jentea etorri jakun, Basauri, Mungia, Bilbo, Getxotik eta, zelan ez, Deriotik. Gaur, 12 gara taldean.

Non batzen zarie?

Taldeko kontuez arduratzeko Derioko Gaztelekuan dogun egoitzan, normalean eguen arratsaldeetan, zazpi eta erdietan. Antolaketa eta partaidetza gaiak jorratzen doguz eta jokaldi batzuk egiteko be apro-

betxetan dogu .

Bada xakearen inguruko zaletasun handirik Derion, Txorierrin, Bizkaian?

Baietz uste dugu, baina jenteak batzeari deutso bildurra. Derion, Txorierrin xakea gustuko dauan jente asko dagoala uste dogu, xakean iaioa dana edo behintzat piezak mugitzen dakiana. Kirol interesgarri eta erakargarria da, menperatzeko praktika eta dedikazioa behar dauana, beste edozein modura. Ez da gehiengoan kirola, ez ei dauka beste kirolen ikusgarritasuna, baina probatuz gero, harrapatuko zaitu. Seguru! Jente asko ezagutzeko aukerea emoten dau. Banakakoa ez ezik taldekako

“Derion, Txorierrin xakea gustuko dauan jente asko dago, xakean iaioa dana edo behintzat piezak mugitzen dakiana”

ikuspuntua be garatzen laguntzen dau, eta batez be, kontzentrazioa, lasaitasuna, pentsetan minutu batzuk emotea errazten dau. Are gehiago, eskoletako kirol esparruko lan-arlotzat hartu beharko litzatekeela pentsetan dogu ume eta gazteei oso ondo etorriko litzakie eta.

Topikoa ala egia: xakean aritzea gatxa da.

Ez gagoz bape ados horregaz. Jakina, dedikazioa, praktika eta disziplina behar dauz, baina honek beste edozein kirolean be beharrezkoak dira. Aurrean dozuna aztertu behar dozu bere indargune-ahuleziak deskubritzeko, estrategia jokaldiak,

posizino, konbinazio ezberdinak ikertu behar dira. Tableroaren aurrean hainbat ordu sartzean dago gakoa.

Txapelketaren bat be antolatzen dozue, ezta?

Bai, urtero, "San Isidro" Nazioarteko Opena, Bizkaiko Zirkuituaren barruan. Honez gain, Derioko Gabonetako Hamabostaldi Kulturalen herri mailako txapelketa eta aldibereko jokaldi bat antolatzen dugu. Apurka-apurka gure jarduna zabaltzen doa, eta Espainiako jokalaria be etorri izan dira batzutan. Gure txapelketa-tik Xakearen Maisu Handiak igaro dira, besteak beste, Stuart Conquest (munduko 100 onenen artean dagoana), Mario Gómez Espainiako txapelduna eta gurean be irabazle makina bat bider, Roberto Cifuentes, Carlos Varas txiletarra, Diego del Rey argentinarra...

Etorkizunari begira, zeintzuk dozuez hurrengo ekimenak, ideiak?

Oraintsu amaitu doguz Bizkaiko Banakako Txapelketak. Bizkaiko Taldekako Ligan be bagagoz, hirugarren mailan. Momentu honetan buru-belarri gabilz maiatzaren 29an, domekan, Derioko kiroldegian ospatuko dan VII Nazioarteko Xake Opena prestetan..

Gure helburuen artean xakea Txorierriko beste herrietara zabaltzea dago, ea taldean kide kopurua handitzen dogun.

Badakigu, bestalde, Derion eta Loion eskoletako umeei xake eskolak emoten jakieza-

la, eta ekimen honeri geure laguntza eskeintzeko erabat prest gagoz, ea futbolaren atzaparretatik askatzen ditugun. Gugana heldu gura izanez gero, hiru dira bideak. www.derioxaketaldia.org gure

"Momentu honetan buru belarri gabilz maiatzaren 29an ospatuko dan VII Nazioarteko Xake

web
mail
Deri
telef
ratut
parte
Gan
urtel
deak
dau.
Best
Deri



Udalak dirulaguntza bat emoten deuskula esan behar dogu, gure jarduerak antolatze-ko ezinbestekoa dana.

Zein da jokaldia hasteko egin daitekeen mugimendurik onena?

Lehenengo eta behin, aurkariari eskua emotea komenigarria izaten da. Geroago, erdian dagozan peoiak mugidutea da hasteko modurik onena.


Aldekoneko Gurea tabernak badauka zuentzat esangura berezi bat, ezta?

Jakina. Guretzat, goi mailako errendimen-du-gunea da, han

José Luis Bilbao, Larraskituerrota Loiuko Elkarteko kidea

“Barazkiak ondo egostea da gure odolosteen sekretua”

Urtarrilaren 18an, San Antontxu egunean, Euskadiko Odoloste eta Txorizoen IX. Txapelketa egin zan Mungian. Jose Luis Urrutikoetxeak eta Jose Luis Bilbaok Barazkizko Odolosteen Saria jaso eben. Biok Larraskituerrota Loiuko elkarteko kideak dira. AIKOR! aldizkaria berbetan egon da Bilbaogaz.



Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Lehenengo eta behin, zorionak emon behar deutsueguz. Pozik, ezta?

Bai, itxaropentsu gengoan, orain dala urte bi be sari hori lortu gendualako. Halako gauzek poztu egiten zaitue, duda barik.

Eta zein da zuen odolosteen sekretua?

Antxinako erara egiten doguz: etxeko lapi-koan, etxeko suan eta astiro-astiro. Txorierrin odolostegile onak izan dira beti, eta guk auzokide baten aholkuari jarraitu deutsagu. Barazkiak ondo egostea da sekretua; kinpula 6 orduz euki behar da lapikoan, gitxienez. Osterantzean, ez dago sekretu handirik: genero ona eta denbora.

Genero ona... Zein osagai erabiltzen dozue?

Kinpula gorria, porrua, arroz apur bat eta txarriaren odola. Barazkien zati handi bat gure ortuan ekoizten da, eta behar doguna alboko baserritarrei erosten deutseguz, baita taloa egiteko artoa be... Larraskituerrota sozietatea orain zortzi urte inguru sortu genduan, eta hasiera-hasieratik oso argi euki dogu geure helburuetariko bat: baserri munduari eta baserritarrei laguntza emotea.

Odolosteak eta txorizoak etxerako egiten dozuez...

Bai, saldu azoketan baino ez doguz saltzen. Txapelketetan aurkezteko produktuak etxean egiten doguz; baina txosnan saltzeko, obradore homologatu batera eroaten

doguz, minimo batzuk bete behar dabeza-lako sanitate aldetik. Txakolina be egiten dogu, baina etxerako. Txosnara Larrabetzuko txakolina eta Gatikako sagardoa eroaten doguz.

Zein txapelketatan hartu dozue parte?

Leku askotara ez gara joaten, egia esan. Orain hiru urte Sopuertan izan ginan, eta hirugarren saria lortu genduan; Laudion be bai. Txarridunek Bilbon antolatzen daben lehiaketan egon ginan orain dala

“Baserri munduari eta baserritarrei laguntza emotea izan da, hasiera-hasieratik, sozietatearen helburuetariko bat”

bost urte, eta diploma bat emon euskuen... Baina ez daukagu txapelketarik txapelketa ibiltzeko asmorik. Azoketan ibiltzen gara etxeko produktuak saltzen, eta gero, saririk badator, ba ondo etorri... Dana dala, hiru txapelketa garrantzitsu baino ez dagoz Bizkaian: Mungiakoa, Bilbokoa eta Sopuertakoa.

Eta zelako maila dago txapelketa horreetan?

Oso altua. Kalitate handiko generoa eroaten da Bilbora eta Mungiara, batez be. Eta baserritar askok hartzen dabe parte. Mungian, adibidez, Bizkaiko eta Gipuzkoako 40 bat ekoizle izan ginan barazkizko odolosteen kategorian.

Nola euskaratu zure nabigatzailea



Zure nabigatzailea euskaratzeko ondorengo pausu hauei jarraitu behar diezu:

-Microsoft Internet Explorer
Herramientas/Opciones de Internet /General/Idiomas/Agregar eta han barruan gehitu Euskara (Vasco, Basque edo eu)

-Netscape edo Mozilla
Edizioa/Hobespenak/Navigator/Hizkuntzak/Gehitu

Edit/Preferences/Navigator/Languages/Add

Edicion/Preferencias/Navigator/Idiomas/Añadir eta han barruan gehitu Euskara (Vasco, Basque edo eu)

-Galeon

Ezarpenak/Hobespenak/Rendering/Languages/Basque

Beste alde batetik, Firefoxen euskarazko bertsioa www.librezale.org web orrialdean aurkituko duzu.

SP: birusen aurkako arma berria

SP Internet Security produktua kaleratu berri du SAGE konpainiak. Horrek birusak, spamak eta spywarek detektatzeko balio du eta enpresei zein etxeko erabiltzaileari zuzenduta dago.

Ordenadorearen sisteman naiz nabigatzailean zaurkotasunak (segurtsun-zuloak) bilatzen ditu SPak. Horrezaz gainera, antiphishing sistema dauka eta arriskuak izan daitezkeen helbideetara bidaltzekoak diren datuak blokeatzen ditu.

Beste alde batetik, sareko ordenagailu guztiak konfiguratu eta eguneratzeko aukera ematen dio erabiltzaileari, baita haien segurtasuna gestionatu ere. Horretarako pasa-hitz batek babestutako interfaza erabiltzen du.



Iradokizunak:

www.bilalan.net

Lan bila zabiltza? Eta euskaraz izatea nahi duzu, gainera? Ba, Euskalkidetzak sortutako www.bilalan.net webguneak errazten dizu beharra. Atari hori euskaraz lan egin nahi dutenei eta langile euskaldunak behar dituzten enpresei zuzenduta dago. Lan-eskaintzaren berri izateaz gainera, zure curriculumak eskegitzeko aukera edukiko duzu bertan.

Nekazal Lursailak Identifikatzeko Sistema Geografikoa

SIGPACa, Nekazal Lursailak Identifikatzeko Sistema Geografikoa sortu berri du Eusko Jaurlaritzak. Horrek katastroa ordezkatzeko du eta nekazari eta abeltzainek erabili ahalko dute azalerari lotutako laguntza komunitarioen eskaerak egiteko.

SIGPACa osatzeko ondorengo datu

hauek erabili dituzte: aireko argazkiak, 1:5.000 eskala, landa-katastroaren lursailen mugaketa eta esparruak mugatzeko lur erabileren foto-interpretazioa. Nekazal Lursailak Identifikatzeko Sistema Geografikoa berria www.euskadi.net eta www.arc.ikt.es /sigpac web orrialdeetan kontsulta daiteke.



Larrabetzu, Asua bailara eta bide zaharrak

Planoan agertzen jakun dorretxea Zugastitarrena da. Bere aldamenean Lezamarako bide zaharra, eta ibaiaren bestaldean burdinola eta dorre jagolea ageri dira, bideak zaintzeko moduko tokian dagozala. Oraingoz ezin badogu frogatu be, baliteke burdinola eta dorrea Uria baino lehenagokoak izatea. Lezamarako bideak be horrela adierazten deusku. Nola egon eitekean, bada, Lezamaranzko bide zahar hori Uria alde batera itxita? Bide horri Lezamarako bide zaharra deitzen jako agiri zaharretan

Gizartearen garapena eta bideen hedapena gauza bera dirala esan geinke. Erromatarrek hain argi ikusi ebena, edozein herrik igarria eban aurretik. Gure lurraldean be bideak egin eta zaindu egiten ziran antxina. Adibide moduan Zugastitarren jatorrizko dorrea daukagu, izan be Bermeorako bidea babesten eben horrek aspaldian. Gaur egun Zugasti baserria dago bertan.

Bide bi egozan Bermeorantz. Bata Ibaizabalaren ezkerraldetik Bermeora joian eta Lezama igaroz, Zarandonatik zehar egiten eban Aretxabalaganerantz (zatirik haundiena hortxe dogu gaur egun). Besteari Gastelarako bidea esaten jakon, eta Aretxabala errekaaren ondotik, eta leku batzuetan errekatik bertatik, igarotzen zan, udan batez be. Hori Zugasti baserriraino joian. Handik Aretxabalaganetik igaro eta Meakaur eta Gernikatik Bermeoko porturantz egiten eban. Bide biek bat egiten eben Zugastitik hurbil.

Biderik zaharrenetzat hartu geinkez horreek, baina badagoz beste pasabide zahar asko, gaur egun ahaztuta edo gitxi erabilten diranak. Lezamarako bidea hortxe daukagu oraindino zati batzuetan. Zugastitarren Sarrikolako dorreak (Etxe-

barri) zaintzen eban bidea. Asuan egoan portutik sartu eta Muskizeko mena errenterian banatzen zan. Mandoz edo gurdiz garraiatzeko bidea zan hori.

Zamudioztar leinukoek eta Sondikan Asuatarrek kontrolpean eukien bidea, Martiartu eta Getxotarrek aurrerago egingo eben moduan. (Agiri zaharretan agertzen

*“Gaur egun ahaztuta edo
gitxi erabilten diran
pasabide zahar
asko dagoz berton”*

dan legez, Zamudioko Arteaga burdinolaren ondotik pasatzen zan bidea. Gurdiak edo mandoak erabilteko bidea ete zan eztabaidak egozan. Eta, jakina, ezin ukatu gurdiek bide zabalagoa behar ebela eta zaintzeko lan gehiago emoten ebala, baina argi dago era guztietako garraioak pasatzen zirala bertatik azken aldietan).

Larrabetzuko Uria sortu ondoren, Zubi Zaharra egoan gaur egun Zubibarri izenagaz ezagutzen dogun tokian. Oholezko

zubia lau bideen gunea zan: Lezamarantz, Galdakaorantz, Etxanorantz eta Bermeorantz.

Antxinako traza ondoen mantentzen dauan bidea Etxanorakoa da, behar bada. Bermeorakoa, barriz, hainbat aldiz aldatu da. Horrela, bada, Astrokarantz jotzen eban zatia bidearen bigarren traza ei zan, baina XVIII. mendean barririo aldatu eben Ugaldetik gora traza barria eginda. Aldaketek XX. mendera arte iraun eben, gaur egungo errepidea egin arte. Beste leku batzuetan be aldatu egin eben bidearen traza.

Eta beste hainbeste esan geinke Lezamarako bidearen ganean. Antxinakoak ez eban Uria zeharkatzen, baina Zubibarritik joian zatia be aldatu eben. Horrek Gailartza igaroten eban Axilietan zehar, eta Hiruribekotik Iberrerantz jotzen eban, hortik eta Lezamako dorrearen ondotik zehar beste bide zaharraz bat egiteko Lezamako Kurtzeko ermitan.

Gogoeta bat amaitzeko: biderik gehienak hortxe dagoz oraindik, zer egin geinke eurokaz?

Testua eta planoak: Sabin Arana



Guara

2004ko ekaina. Udarako opor planteamendua nahiko berandu egiten hasi nintzen. Gainera, munduko inongo puntara bidaiatzea ekonomikoki bidegarria ez denean, barruko arrak inora joateko ultimatum bezalako bat botatzen dizunean, edozein aterabide ontzat hartzeko makurtze fasean sartzen hasten zara.

Testua eta argazkiak: Iosu Ziordia

Planik inondik inora agertzen ez zaizunean, desesperaturik ikusten duzu herri-zaintzaile horietako bat bihurtzeko arriskua zena hezurmamitzen hasten dela. Baina gutxienez espero duzunean...taka! Argia tunelaren iluntasunean! Ura basamortuan!

Benetako "plan" salbatzailea, sakeleko telefonoaren bidez heldu zitzaidan: Huescako Guara mendizerra zulatzen dituzten ibaietatik jaistea, Jon Ander zamudioztarra (abentura honen buru eta motore) eta biok, Gasteizko lagun batzuekin batera, Andra Mari jaien ostean. Erabat ezezaguna zen eskualde batera nioan, inongo erreferentzia barik. Hala ere, geroago nire begiek baieztatu zuten bezala, kanoiak mendi paraje eder batean kokatzen ziren. Pirinioen magalean, Huescan, Ainsa, Sabiñanigo eta Barbastro artean, hain zuen.

Egindako gonbiteak, ordea, asmoak argi eta garbi utzi zituen: "Gura baduzu etorri... lekua badago... hori bai, abisu bat: gu lau-bost egunetan hauxe besterik ez dogu egingo: lo, jan eta uretan ibili". Baiezkoa ia inkontzienteki atera zitzaidan. Ez zuen garrantzirik paraje hura non zegoen, prestakuntzarik

behar ote zen kirol honetan jarduteko... erakargarria eta salbatzailea zen. Eta kito.

Horrela, abuztuko bigarren astean, auto biak itxarobidez bete eta hiru-lau ordutara zegoen Rodellar herrirantz abiatu ginen. Kanpatu eta kanoien mapa bat eskuratzea izan ziren gure lehengo lanak, zetozen egunetarako ezinbestekoak.

Lauetatik hiruk esperientzibakoak ginen halako saltsatan. Eskerrak Jon Ander kirol honetako gidari lanetan ibilia zela! Neopreno jantziaren neurriarekin arazoren bat edo beste izan genuen arren (batez ere nik), oinarritzko teknikak eta aholkuak lehengo egunetik barnerarazi zizkigun: segurtasunezko materiala ezinbestekoa da jeitsiera bakoitzaz gozatzeko, baina arreta ez galtzea eta memeloenak ez egitea dira arriskuetatik libratuko zaituena. Prestaketetan genbiltzanean eta hurbilketa ibilalditxoan, buruan pilatzen zaizkizu hainbat alditan entzundako kontakizun eta istorioak kirol hau dastatu dutenen ahoetatik. Ikaragarritzko saltoak egitea, haitzezko hormen artean uger egitea, harri erraldoien azpitik urperatzea, ibaien urek milaka urtetan zehar higitutako bideetatik pasatzea,



adrenalina askatzea... eurek bezala sentituko ote?

Ba bai. Esperientzia gogoangarria, zinez. Ehunka irudi, paisai, estutasun, itolarri, neke, flipe, etab. gogoan iltzaturik geratu zitzaizkidan. Eta onena, dibertigarria izateaz gain, galdutako lasaitasuna berreskuratzeko baliagarri izan zitzaidala. Dena den, gauza asko ez ditut aipatu ere egin... beharbada, zuk zeuk sentitu ditzazun.

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Arroz-esnea

- Litro bat esne
- Arroza (kikara txiki bete)
- Ura (kikara txiki bete)
- Azukerea (5 koilarakada)
- Kanela zotza

Prestatzeko era

Lapiko baten ura eta arroza

egosten ipini; eragin arroza guztiz sikatu arte.

Aldi berean, esnea kaneleagaz irikiten ipini.

Irikin eta gero arrozari astiro-astiro bota, eragiten dogun bitartean.

Su txikian irikiten euki 45 minutuan gitxienez, azkenerantza azukerea bota...

Eta on egin!



Mari Tere Onaindia

Arroz eta almendrazko tarta

Osagaiak:

- 150 g arroz
- 150 g azukre
- 60 g gurin
- 60 g almendra eho
- 4 arrautza
- 1 esne
- Gatz apur bat
- Bainila-adar
- Moldea igurzteko gurina

Prestatzeko era:

Garbitu arroza ur hotzetan eta xukatu. Irakin 5 minutuan, bota ura eta xukatu berriro. Jarri esnea, gatza eta bainila irakiten; bor-bor egin ondoren, bota arroza. Utzi su motelean egosten 30 minutuan. Epeltzen denean, atera bainila eta gehitu azukrea, arrautzak, almendra eta gurin urtua. Igurtzi moldea gurinez eta bota bertara ore. Sartu labera eta egosi ordu eta laurdenean.



San Isidro jatetxea Derion

LIBURUAK

Odolean neraman

Joan Mari Irigoyen

Medicina popular en Vasconia

Labayru

Elurren hotsak

Pablo Sastre

Todos nacemos vascos

Oscar Terol



DISKOAK

Once more with feeling. Placebo

The girl in the other room. Diana Krall

Esperantzari leiho bat : antologia : 1966-2004. Oskarbi

Eperra. Etxart, Larrandaburu

Irri eta solas. J. Irazoki

Xarnege

DENBORA PASA

LETRAZOPA

A	B	D	E	J	A	E	Z	T	U	R	U	K
N	L	K	B	G	R	S	D	A	N	T	K	D
D	P	O	S	M	R	N	J	P	B	F	P	G
F	R	F	I	H	I	R	A	K	I	K	L	S
L	E	P	A	R	A	N	O	L	T	Z	A	M
D	N	L	G	Ñ	G	K	T	A	J	X	R	L
M	O	E	L	S	A	M	I	M	I	E	R	G
J	K	L	Z	O	R	D	Ñ	B	F	X	O	N
O	E	N	G	P	R	Z	E	L	P	I	N	H
E	D	B	S	J	P	O	T	H	D	Z	D	K
K	L	P	M	A	I	S	Ñ	Z	K	M	O	R
P	A	N	A	X	K	J	Y	O	R	F	Y	L
B	K	H	P	J	B	R	F	H	M	D	O	G

A	D	J	L	P	G	R	E	S	F	Z	O	K
I	R	R	E	I	O	G	M	I	M	D	Z	F
M	R	B	G	F	I	L	G	U	L	O	I	B
U	G	A	N	U	K	T	K	E	R	D	N	R
B	K	I	Z	A	O	N	G	X	A	I	L	D
E	Y	A	O	T	E	J	O	H	P	G	Y	J
P	L	R	B	E	L	I	Z	A	R	T	Z	A
D	X	T	K	O	E	O	L	E	I	K	E	X
M	H	Z	P	R	X	O	I	R	G	A	T	I
G	O	A	N	U	A	L	U	A	S	H	M	Y
J	D	S	M	A	L	S	D	N	R	O	X	B
T	E	I	T	L	D	M	I	I	U	A	M	P
A	O	F	M	H	E	Z	H	B	J	N	G	J

Aurki itzazu ondoko letra-zopan **Txorierriko beste 7 auzoen izenak**. Herri bakoitzeko bana dago. Erantzuna jakin nahi baduzu hurrengo aldizkarian agertuko da.

Kontutan hartu goitik behera, behetik gora, ezker eskuin, eskuin ezker zein diagonalean aurkitu daitezkeela.

AURTEN ERE, KORRIKAN EGITEKO HAMAIA ARRAZO!



Agenda



Antzerkia eta filmak

Sondika. *Umore Showa* Riki Lopezekin, martxoaren 4an, 21:00etan.

Zafarrancho en el rancho eta *Piratas del Caribe* filmak, martxoaren 6an, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren.

El contrabajo antzezlanak Maskarada taldearen eskutik, martxoaren 11n, 21:00etan; *Kartoibiraka* antzezlanak Markeline taldearen eskutik, martxoaren 12an, 17:00etan.

Buscando a Nemo eta *La mansión encantada* filmak, martxoaren 13an, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren.

El gato eta *Crueldad intolerable* filmak, martxoaren 20an, 16:30ean eta 19:00etan, hurrenez hurren. Guztiak Kultur Etxean.

Zamudio. *The best of the momix*, Arriaga antzokian. Apirilaren 22an, 20:00etan.

Larrabetzu. *Cocidito madrileño*, Lizeo antzokian. Sarrerak otsailaren 23tik aurrera salgai.

Erakusketak

Zamudio. Tailerretako lanak, martxoaren 4tik 10era arte.

Elkartasunerako Fondoak antolatutako lehiaketa irabazi duten kartelak.

Hitzaldiak

Sondika. *Uda garaiko oporraldian haur saharren onartzea*. Martxoaren 8an, 20:00etan, Kultur etxean.

Ikastaroak

Derio. Erretzeari uzteko ikastaroa. Martxoaren 28an, 17:00etan, jubilatuen etxean.



Irteerak

Lezama. Riañora, Gailur mendi taldeak antolatuta. Martxoaren 24tik 28ra bitartean.

Kirola

Zamudio. Bilbao-Bilbao ibilaldi zikloturista, martxoaren 13an, 10:00etatik 11:15ra arte.



Bestelakoak

Lezama. Zuhaitz Eguna. Martxoaren 6an, 10:30ean, udaletxeko plazatik irtengo da: zuhaitzak landatu, hamaiketakoak...

Domeketan Jai. Tailerrak eta jokoak pilotalekuan, 17:00etatik aurrera.

Larrabetzu. Udal ikastaroetan matrikula berritzeko epea, martxoaren 7tik 14ra arte. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun tailerra apuntatzeko epea, martxoaren 14tik 18ra arte.

Domeketan haur jaia, martxoaren 20an, 17.30ean, pailazoak pilotalekuan. Aste Santuko programa ludotekan, martxoaren 21etik apirilaren 1era bitartean, 10:30etik 13:30ak arte.